



BARREN
TOKIKOM



AHOBIZI



BELARRIPREST



ARIGUNEA

Egitera goaz

Batzen gaituen
esentziak
izan dezala
presentzia

 DANOBATGROUP



HARTU PARTE DANOBATGROUPen
EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko
gure ekimenak eta irabazi Errigora ekimenak
sartutako bi saski beltz!

<https://www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2020.html>
*Parte hartzeko azken eguna: 2020ko azarraz 30, 00:00



DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.



*Mila esker
zuen konfiantzagatik!*

Sherpa edredoi-bilduma berria!

Oso leunak.

Alde bat mikrolinazkoa da,
eta bestea borregitozkoa.

Tamaina guztietan.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Kutxabank
EUSKARALDIArekin

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN**



2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

FAMILIENTZAKO JOSTAILU ERAKUSKETA

0-8 URTE
KULTUR ETXEKO
ERAKUSKETA GELAN

8-99 URTE
AITA AGIRRE KULTURGUNEKO
ERAKUSKETA GELAN

..... **ORDUTEGIA**

AZAROAREN 20AN, BARIKUA, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 21EAN, ZAPATUA, 11:30ETIK 14:00ETARA

10 urtetik beherakoek heldu batekin etorri beharko dute

**NOIZNAHI ETA NONAHI QR BIDEZKO
ERAKUSKETA BIRTUALEAN**



Antolatzaileak:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Egitea da kontua

Gaur ekin diogu, eta abenduaren 4ra arte egingo dugu. Batzuek euskaraz ulertzen duenari euskaraz egiteko konpromisoa hartu dugu. Beste batzuek, berriz, euskaraz ulertzen dugula azaldu eta guri euskaraz berba egiteko adieraziko dugu.

Egitea baita kontua. Edo saiatzea behintzat. Ahalegintzea. Nork beretik jarrita; denon artean geurea emanda.

Dagoeneko jarri dugu txapa paparrean. Goizean, lanerako bidea hartu dugunean, edo eskolarakoa, jende gehiagok ere baduela txapa ikusi dugu. Eta elkarri begiratu diogu, konplizitate keinu batekin. Pozik bezala.

Asko gara izena eman dugunok. Asko dira sortu ditugun ariguneak. Asko gara dakigunak. Eta asko gara ulertzen dugunak. Uste duguna baino gehiago.

Egitea da kontua. Gehiago egitea.

Badakigu ez dela erraza izango.

Badakigu bikotekideari edo gurasoei beti erdaraz egin badiegu, hori aldatzea zaila dela, txapa jarri arren.

Badakigu gure enpresako bulegoan erdara nagusi izan bada orain arte, *arigune* ikurra jartzea ez dela nahikoa izango.

Badakit urduri jarriko naizela gaztelaniaz egiten diedan bezeroak dendara txaparekin sartzen direnean.

Badakit gure elkarteak izena eman duela Euskaraldian, baina gure entrenamenduetan, orain arte, gaztelania entzuten dela batez ere.

Horretarako da Euskaraldia. Egiten dugunaren gainean hausnartzeko. Hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko. Inertziak apurtzeko. Gaur zaila dirudiena bihar egingarri izateko.

Egitea baita kontua.

Aurten, ariketak iraungo dueneko 15 egunetan, zoritxarrez, kaleak, plazak, taberna-jatetxeak, kirol guneak eta bestelakoak erdi hutsik edo itxita egongo dira; herritarrok, berriz, gure arteko distantzia zaindu beharko dugu nahitaez. Ez dira baldintzarik onenak gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko, baina egitera goaz. Ahalik eta ondoen egitera.

Egitea baita kontua.

Elgoibarko EUSKARALDIA Taldeak

elgoibartar guztiok gehiago egitera animatu nahi zaituztegu. Izena eman duzuenok, bereziki, baina baita izena eman ez duzuenok ere. Eta, bide batez, bat egin nahi dugu bizi dugun pandemiagatik gaizki pasatzen diharduzuen herritar guztiokin. Euskaraldia ekimenak berarekin dakartzan ilusioa eta itxaropena zuengana ere iristea nahi dugu.





ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU

Hori zirkuloaren koadratura den, neska!

Italierazko *Eppur si muove* galileitarra, erabili ohi da, esaterako, gertaera baten egiazkotasuna ukatu arren, hau guztiz egiazkoa dela adierazteko. Hala xuxurlatu ei zuen Galileok inkisizioaren aurrean, inork entzuteko baino baxuago, zer gerta ere, baina, Egia baino bilatzen ez duenaren duintasunari eutsiz.

Irrati eta telebistetako orojakileek maiz, eta harro, darabilte gazteleraz *niego la mayor* aristoteliarra, arrazona-mendu baten oinarria (premisia nagusia) faltsua dela eta, beraz, lortutako ondorioa ezin dela zuzena izan adierazteko. Askotan egokitasun irizpideetatik urrun, baliabide estetiko bat baino ez dena. Audientzia inpresionatzeko

egina, pabo errealak buztan koloretsua nola.

Eta hor daukagu hainbestetan entzundako 'hori zirkuloaren koadratura den, neska!' euklidearra; zerbait oso zaila edo ezinezkoa dela adierazteko erabilia. Zirkuloaren koadratura aurkitzea geometria euklidearreko problema klasiko bat zen. Zirkulo jakin bat emanik, eta konpasa eta graduatu gabeko erregela bat soilik erabilia, zirkulo horren azalera bereko karratu bat eraikitzean zetzan problema. Aintzinako greziarrek ez zuten erantzuterik lortu. Lindemann izan zen 1882an, teknika matematiko konplexuak erabilia, problemak soluziorik ez zuela erakutsi zuena. Gaur tertulianoen erudizioaren neurri bilakatua.

Badakigu, jakin, eguneroko hizkuntzan erabiltzen diren esaerek azalpenak emateko lana aurrezteko balio izaten digutela eta jendeak, gutxi asko, esan nahi dena ulertzen den heinean, ideia konplexuak, hitz gutxitan adierazteko, edo ideia ez hain konplexuak, jakintsuen autoritatez janzteko erabiliak izan ohi direla. Filosofiaren, zientziaren, eta are, matematikaren ekarpenak aurki ditzakegu, horrela, eguneroko jardunean.

“Filosofiaren, zientziaren eta matematikaren ekarpenak aurki ditzakegu eguneroko jardunean”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Sustatzailearen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► AGUR, JUAN CRUZ SOL

Umetan amak egindako oparirik onenetakoa izan zen. 45 urte pasa dira, baina oraindik gogoan daukat zuri-beltezko erretratu hark eragin zidan zirrara.

Valentzia futbol taldeko kamiseta gorputzera estututa, ile luze hori eder askoa sorbaldaraino, Juan Cruz Solek beste munduko gizakia zirudien mutil koskor haren begietan. Ez zegoen opari hobirik: futbol jokalaria mirestua argazkia, izen abizen eta guzti dedikatua.

Oso gazterik joan zen Valentziara, 16 urte baino ez zituela. Baina beti egin zait deigarri zein estimatua izan den jaioterrian. Bisitan zetorrenean, denbora behar zuen amaren etxera ailegatzeko. Bata eta bestea agurtu, ez zituen pauso asko segidan ematen. Atentzioa emateko modukoa zen haren gertutasuna.

Elgoibarrek makina bat futbol jokalaria on eman ditu, asko dira Lehen Mailako taldeetan jokatu dutenak.

Kirol munduan lortutakoagatik ez ezik, bere izakeragatik ere gogoratuko dugu Juan Cruz Sol. Goraino heldu zen, baina ez zuen apaltasunik galdu. Laguntzeko eta emateko prest, handia zen benetan haren eskuzabaltasuna.

Bere memoria eredugarri izan dadila.

Aitor Zabaleta Arrieta

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastalako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datarren eskutitzik argitaratuko.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:
barren@elgoibarkoizarra.eus
 Barreneko bulegora ekarri:
 Alta Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk.



Protesta zaratatsua egin zuten Elgoibarko ostalariek joan zen barikuan



Ostalaritza ixteko Jaurlaritzaren agindua azaroaren 7an sartu zen indarrean, eta horren aurrean Elgoibarko ostalarien sektoreak protesta egin zuen joan zen barikuan. Elkarretaratze jendetsua eta zaratatsua egin zuten ostalaritza guneen itxiera salatzen eta bizi duten egoera larri honen aurrean dirulaguntzak eta babes neurriak eskatzeko. Maalako parkean elkartu ziren ostalariak eta sektorearen bueltan lan egiten duten beharginak, eta auto karabana batek gidatu zuen manifestazioa S.O.S. Ostalaritza lelopean, Kalegoen plazara arte. Udaletxe aurrean aparkatu zituzten ibilgailuak eta protestariak borobilean batu ziren, plaza guztia hartuz.



Azaroaren 30era bitartean eskatu dezakete ostalariek zabor kuotaren bonifikazioa

Bost langiletik gorako herriko taberna, kafetegi eta jatetxeei azaroko eta abenduko zabor kuota ez kobratzea erabaki zuen Elgoibarko Udalak, eta azaroaren 30era artekoa dute bonifikazioa eskatzeko aukera. Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) eskatu behar da azaroko eta abenduko zabor kuota ez kobratzeagatik bonifikazioa. Udalak jakinarazi du abenduaren 15etik aurrera egingo dituela ordainketak.

Fiskalak eskatu du berriro egiteko 'Bateragune auziko' epaiketa

Fiskaltzak aintzat hartu du Vox alderdi ultraeskuindarrak aurkeztutako helegitea, eta Espainiako Auzitegi Gorenari eskatu dio berriro egiteko *Bateragune auziko* epaiketa. 2012an, Auzitegiak sei urte eta sei urte eta erdi bitarteko zigorrak ezarri zizkien ezker abertzaleko bost kideri –Arnaldo Otegi, Rafa Ruiz, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta eta Sonia Jacinto–, baina, geroago, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aho batez ebatzi zuen epaiketa ez zela «inpartziala» izan, eta, ondorioz, Espainiako Auzitegi Gorenak epaia baliogabetu zuen. Orain, fiskaltzak uste du «prozedura akats bat» baino ez zela egon eta horrek ezin duela ekarri «errudunak zigorrak gabe uztea». Vox alderdi ultraeskuindarrak aurkeztu zuen helegitea, eta alderdi hori izan da fiskaltzaren erabakiaren berri eman duena, sare sozialen bidez. Orain, Auzitegi



Gorenak erabaki behar du fiskaltzaren eskaera aintzat hartzen duen –horrek epaiketa berriro egitea ekarriko luke– edo, kontrara, bazter lagatzen duen.

Karakoleko zubia berritzeko obrak hasi dituzte

San Roke auzoko irisgarritasuna hobetzeko Karakoleko zubia berritzeko lanak hasi ditu Udalak aste honetan, eta hasierako aurreikuspenen arabera, bizpahiru hilabetean amaituko dituzte. Obrak iraun artean, oinezkoen pasabidea itxita egongo da. Guztira 105.377 euro (BEZ barne) jarriko ditu 2019ko partaidetza bidezko aurrekontuetan boto gehien jasotako proiektu hau gauzatzeko. Udal arduradunek esan dute zubia erabilgarri eta egoera funtzional onean dagoela, baina denboraren joana igaritzen zaiola egiturari. Zehaztu dutenez, egitura, gailur, baranda, estaldura, zoladura zein argiztapenari eragiten dizkieten zenbait gaitz ditu. Itxurari dagokionez, gaur dituenak baino kolore tonu argiagoetan margotuko dute zubia.



Mendaroko PSE-EEk hemezortzi proposamen aurkeztu ditu Udal aurrekontuak "hobetzeko asmoz"

Mendaroko alderdi sozialistak 1.170.700 euroko kopurua osatzen duten hemazortzi proposamen aurkeztu ditu Udalean, 2021eko udal aurrekontu proiektua "hobetzeko asmoz", eta ekimen guztiak diruzaintza-gerakinarekin ordaintzea proposatu du Maria Jose Telleria zinegotziak. Diru-kopuru handiena, 500.000 euro, Mendaroko Ospitalerako irisgarritasuna hobetuko lukeen igogailuak hartuko luke, "ospitela herrigunetik urrun dagoelako eta erabiltzaileentzat zaila delako bertaraino ailegatzea". Telleriak enfasi berezia jarri du tokian tokiko ekonomia sustatzean eta lanpostuak sortzean, eta horien aldeko ekimenak eta politikak 2021eko udal aurrekontuetan agertu behar direla uste du: "Mendaroko enpresek beharginak kontratatzeke 150.000 euroko dirulaguntza proposatu dugu, eta 25.000 euroko beste partida bat lanpostu beharren inguruko aholkularitza bulego bat sortzeko", adierazi du. Ekingune elkartearantz 700 euroko dirulaguntza ere proposatzen dute, ekinzailtza sustatzeko. Kontsumoa bultzatu eta bonoen bidez herriko komertzio-etan erosketak egitea sustatzeko, berriz, 12.000 euroko partida bat proposatu dute. Deialdiak, kontratuak, lizitazioak eta antzerakoak kudeatzeko goi mailako teknikari baten aldi baterako kontrataziorako proposamena ere ageri da txostenean, eta horretarako 50.000 euro aurreikusten dituzte. Klima aldaketari aurre egiteko zenbait proposamen ere landu eta aurkeztu dituzte Mendaroko sozialistek. Ikastolan plaka fotoboltaikoak ipintzea (75.000 euro) da horietako bat. Era berean, kaleko argiterian LED erako argiak ipinita kontsumoa asko murriztuko litzatekeela uste dute, eta 150.000 partida proposatzen dute. Baserrri bideak konpontzeko udal gobernuaren partida 90.000 euroan handitzea da PSE-EEren beste proposamenetako bat, 150.000 euro guztira. Gazteentzat, besteak beste, indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio-ekintza baterako 7.000 euroko diru-partida aurreikusi dute, eta beste 3.000 euro eskolaurreko ikasle bakoitzari liburu bat euskaraz, beste bat gaztelaniaz eta beste bat ingelesez oparitzeko, irakurzaletasuna sustatzeko *Book Start* Europako proiektuarekin bat eginda. Proposamen guztiak www.socialistasvascos.com webgunean kontsulta daitezke.

San Bartolome parrokiak ez du aurten loteriarik salduko

Elgoibarko San Bartolome parrokiako ardura-dunek jakinarazi dute aurten ez dutela Gabonetako loteriarik salduko, koronabirusaren pandemiagatik.

Alkoholik gabeko edariak saltzeko baimena izango dute ostalariek

Dudak sortu dira ostalariek kafeak eta antzekoak emateko izan zitzaketen aukeren inguruan; izan ere, okindegietan-eta adibidez, saltzen dituzte eramateko kafeak. Bada, Eusko Jaurlaritzak arindu du egin du hilaren 7an, COVID-19ari aurre egin nahian, tabernak eta jatetxeak itxeko ezarri zuen dekretua; eta orain, ostatu horiek baimena izango dute, eramateko jakirik saldu gabe ere, edariak eta kafeak bezeroei eskaintzeko. Beti ere, alkoholik gabeak izan beharko dutela gogoratu du, eta "berariaz" emanda dagoela kalean edatearen kontrako gomendioa. Eramateko zerbitzu horiek ere mugak dituzte, eta 21:00etatik aurrera ezin dira eman. Oroitu behar da, bestela ere, aisialdiarekin eta merkataritzarekin lotutako jarduerak guztiek 21:00etarako bukatu behar izaten dutela, eta 22:00etan etxeratzeko agindua ezarrita dagoela.

Hainbat ekintza izango dira Elgoibarren eta Mendaron, indarkeria matxistaren biktimak zenbaki hutsean gelditu ez daitezten

Elgoibarko Udalak egitarau zabala prestatu du azaroaren 25ean izaten den Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Herriko hainbat eragilerekin elkarlanean osatu dute programazioa, Covid-19 egoerara moldatuta eta segurtasun neurri guztiak hartuta. Jende pilaketak sahieste aldera, aurten ez dute elkarretaratzetik egingo, baina, emakumeen aldeko aldarria zabalitzeko beste hainbat ekintza egingo dituzte. Haizeak, Jubilatuen Biltokiak, Uluka batukadak, Ludoteka eta Gaztelekuak eta Udal Liburutegiak hartu dute parte egitarauan, eta besteak beste, hitzaldiak, filmak, tailerrak eta argazki erakusketak antolatu dituzte. Hain zuzen ere, argazki erakusketa ibiltaria izango da aurtengo berrikuntza nagusienetakoa. Gaur hasi eta abenduaren 4ra arte, *Indarkeria matxista: Zutik emakumeok!* argazki erakusketa izango da ikusgai herriko 16 dendatako erakusleihatuan. Basauriko Marienea Emakumeen Etxeak utzitako bilduma da, eta munduko hainbat lekutan indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeen erresistentziak argazki bidez erakutsiko dira. Azaroaren 25ari loturiko ekintza guztiak agendan dituzte. Mendaron, zapata gorriak jarriko dituzte plazan indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak gogoratzeko. Zapata pareen ondoan, mezu bana idatziko dute, biktima izan diren emakumeen izen banarekin. 19:00etan izango da ekintza, eta zapatak Leire jantzi dendara eramateko eskatu dute, han margotuko dituztelako gorritz. Gaur da horretarako azken eguna.

Hirigintza Arauetan egindako aldaketen kontrako alegazioa aurkeztu du Larke 360 enpresak, Azkaraten Hondakin Gunea eraikitzeke proiektuaren harira

Azkarate gainean, Azkoitiko lurretan, baina Elgoibarko mugetatik gertu, eraikuntza eta eraispin hondakinak jasotzeko egin nahi zuten plantaren proiektuak hautsak harrotu zituen joan den udaberrian eta udan, harik eta Azkoitiko Udalak ezetza eman zion arte proiektuari. Enpresak, ordea, ez du amore eman, eta Azkoitiko *Maxizatzen* herri komunikabideak argitara eman duen informazioaren arabera, Azkoitiko Udalak Hirigintza Arauak aldatzeko aho batez hartutako erabaki puntualaren kontra alegazioa aurkeztu du Larke 360 enpresak udaletxean. Hain zuzen ere, Udaleko alderdiek aho batez onartu zuten lurzoru ez urbanizagarrien gaineko aldaketa puntuala egitea joan zen irailaren 29an egindako udalbatzarrean, eta aldaketa hori tarteko, eraikuntza eta eraispin hondakinak jasotzeko Larke 360 enpresak Azkaraten egin nahi zuen lur eremua ez urbanizagarri izendatu zuten. Erabaki hori behin-behinean onartuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta alegazioetarako epea zabaldu zuten. Larke 360 enpresak alegazioa aurkeztu du udaletxean, erabaki horrek oinarri legalik ez duela esanez eta bertan behera uztea eskatuz. Azkoitiko Udalak txosten juridiko-teknikoa egingo du Larke 360 enpresak aurkeztutako alegazioa tarteko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Ordenamendurako Batzordera dokumentazioa bidaliko duela azaldu dio *Maxizatzen* aldizkariari.

Lorak banatu ditu Elgoibarko Udalak

Uda garaiko lorak kendu eta negukoak ipintzen hasi da Elgoibarko Udala, eta herriko hainbat tokitatik kendu dituztenak herritarrei oparitu dizkie. Maalako parkean banatu zituzten lorak eguaztenez, eta jende ugari gerturatu zen loreen bila.



Bihar amaituko da Jostailuen Erakusketa

Gabonetan erositako dituzten jostailu egokiak aukeratzen laguntzeko familientzako jostailu erakusketa antolatu dute aurten ere Elgoibarko Ludotekak eta Gaztelekuak, Atxutxi-maikarekin batera. 0-8 urte bitartekoentzako jostailuak Kultur Etxeko erakusketa gelan daude ikusgai, eta 8tik aurrerakoentzako, berriz, Aita Agirre Kulturguneko erakusketa gelan. Gaur arratsaldean 17:00etatik 19:30era egongo da zabalik, eta bihar, 11:30etik 14:00etara.



Herriko merkataritza suspertzeko indarrak batu dituzte Txankakuak eta Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak eta Txankakua merkatarien elkarteak lan-kidetzat hartzen dituzte herriko merkataritza dinamizatzeko. Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruko Departamentuaren laguntza (34.333 euro) jaso du ekimen honetarako, eta horri esker, 40.700 euroko dirulaguntza emango dio merkatariei. Alde batetik, 4.400 euroko dirulaguntza emango dio merkataritza dinamizatzeko ekintzak abian jartzeko: Elkartegintza sustatu; hiri merkataritzaren ikuspegi bateratua eta erakargarria sustatu eta sendotu; bezeroaren leialtasuna bultzatu kanpainen, deskontuen, beharlarako sarien, puntu katalogoen eta zozketen bitartez; inguruko herrietako bezeroak erakartzeko ahalegina egin, bezeroak azalera handietara joan ez daitezkeen... Beste alde batetik, Elgoibar-Klik izeneko plataforma digital bat jarriko dute abian, eta aplikazio horrek *Market Place* izeneko atal bat izango du, on-line saltzen duten udalerriko enpresa guztiak bilduko dituena.



Ane Beitia alkateak eta Ruth Garate Txankakuako presidentek sinatu zuten hitzarmena, eta, Udalak zein Txankakuak batzeko deia egin diete establezimenduei, proiektuarekin bat egin eta plataforma horretan parte har dezaten. Interesa duten negozioek Udaleko Ekonomia Sustapen eta Enplegu Sailera edota merkatarien elkartera jo dezakete.

Erakusleihen Gabonetako lehiaketa antolatu du Udalak

Erakusleihen Gabonetako lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, herriko saltokietako kontsumoa sustatu eta Gabonetan kaleak animatzeko asmoz. Gaia Gabonak izango da, eta merkataritzako eta zerbitzuetako establezimendu guztiek parte hartu ahal izango dute, baldin eta Gabonetako dekorazioa erakusteko ageriko erakusleihoren bat baldin badute. Udalak Gabonetako objektu berbera emango die parte hartzen duten establezimendu guztiei. Objektu hau erakusleihoan egon beharko da, establezimendu bakoitzak diseinatzen duen dekorazioaren barruan. Objektua Gabonetako zuhaitz modernoak izango dira, argiztatua; eta erakusleihorekin arabera aukeratu du Udalak bakoitzarentzat neurri egokiko zuhaitza. Hiru tamaina izango dira: handia (80 cm-ko altuera), ertaina (60 cm-ko altuera) eta txikia (40 cm-ko altuera). Parte hartu nahi dutenek azaroaren 23ra arte izango dute izena emateko epea, (egun hau barne) 14:00ak arte, eta horretarako, izen-emate orria bete eta e-mail bat bidali beharko da sustapena@elgoibar.eus helbidera; edo bestela, izenemate orria hartu eta HAZ bulegoan aurkeztu beharko da (Santa Ana kalea, 2). Abenduaren 9rako erakusleihoak prest egon beharko dira. Epaimahai teknikoak bi sari emango ditu, 300 eurokoa lehenengoa eta 200 eurokoa bigarrena, Txankakuako dendetan gastatzeko. Herritarren botoen bidez emango dute beste sari bat, 100 eurokoa eta bozkatzen duten herritarren artean 50 euroko erosketa bono bat zozkatuko dute.

Haur eta gaztetxoentzako hainbat ekintza antolatu dituzte Eguberrietako oporraldirako

Atxutxiamaiak eta Ludotekak hainbat ekintza antolatu ditu Eguberrietako oporraldirako, HHko eta LHko umeentzat. Abenduaren 23an, goizez, Eguberrietako apaingarriak egingo dituzte LHko umeek. Ludotekako eta Elgoibarko Izarrako bazkideek 4 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 5 euro. Hilaren 28an Ganbarako ipuinak ikuskizuna eskainiko dute Herri Eskolan (16:30ean), eta hilaren 29an, Matraka ikuskizuna. Bi hauek 3 urtetik gorakoentzako saioak izango dira. Abenduaren 30ean, berriz, familientzako *Historias de un baúl* ikuskizuna eskainiko dute, Herriko Antzokian, 19:00etan. Urtarrilaren 4an Organik emanaldia egongo da Herri Eskolan, hilaren 7an egunpasa joango dira LHko umeak eta azkenik, urtarrilaren 8an *Aioko* itzalen ikuskizuna izango da Herriko Antzokian. Horrez gain, Eguberrietako abestia eta bideoak ere prestatu dute musika eta dantza eskolakoei, eta egun horietan zehar kaleratu dute.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Mintxetan argi gutxi dago: "Mintxeta inguruan argi gutxi dagoela iruditzen zait, bai pasiaran ibiltzeko eta baita aparkalekuan dagoen kirol kantxan ere. Ordua aldatu zutenetik azkar iluntzen du eta farola gehiagoren beharra ikusten dut Mintxetari buelta ematen dion ibilbidean. Zati batzuetan ez da ezer ikusten."

Gero eta jende gehiago ikusten dut parkeetan kafea hartzen eta beldur naiz ez ote dizkieten umei parkeak itxiko: "Tabernak eta dendak eramateko kafea zerbitzatzeko hasi direnetik jende asko ikusten ari naiz plazetan eta parkeetan kafea hartzen eta kezkatuta nago, ikusten dudalako jendea pilotzen hasiz gero, parkeak ixteko arriskua dagoela. Ondo iruditzen zait tabernei aukera hori ematea, bizi beharra dutelako, baina kafea hartu eta etxera edo beste lekuren batera joan beharko luke jendeak hartzera, bestela gertatuko da lehengoa. Lehen, terrazetan jendea pilotzen zela-eta itxi egin zituzten, eta orain zer gertatuko da jendea parkeetan batzen hasten bada kafea hartzeko?"

Komun publikoak behar dira Elgoibarren: "Tabernak itxi dituztenetik are handiagoa da komun publikoen beharra Elgoibarren. Ume zein nagusiek komunera joateko beharra igartzen dutenean, berehala behar izaten dute komunera joatea, eta Elgoibarren ez daukagu batere erraztasunik. Lekueder inguruan ume asko ibiltzen da jolasean, eta ez dago komunik. Aita Agirre eraikineko beheko solairuko komunak zergatik daude itxita? Taberna itxita egon arren, komunak zabalik egon daitezke. Bolatokian egin zituzten komunak, eta Merkatu Plaza azpian ere badaude, baina oso egoera txarrean. Aurreko astean Usuako parkean geundela sartu ziizaion kakagurea umeari, eta hantxe egin behar izan genuen, zuhaitz baten azpian. Umearen kaka jaso eta zakarrontzira bota nuen, ez naitzelako txakur jabe asko bezain narratsa. Hartu kontuan mesedez herritarren beharrak. Eskerrik asko". Hirigintza Sailera jo dugu, eta ondorengo erantzuna eman dute: "Komunak daude ia parke inguru guztietan, gertuago edo urrutiago: Maalan, Urazandin, Bolatokian, Altzolan, hainbat eraikinetan (Aita Agirre, Musika Eskola...).. "Bolatokio komuna zabalik egon da, eta zabalik jarraitzen du eta garbitu ere egiten da. Merkatu plazan bi komun daude, behekoa zaharragoa, eta besteak, O. solairuan. Egokitutako komuna dago bertan. Horrez gain, bidegorrian ere komuna jartzeko lanetan gabilta".

Arropa dizdiratsua edo argia erabiltzea eskatu nahi nieke Sallobente aldera joaten diren oinezkoen zein txirrindulariei: "Sallobente auzoko bizilaguna naiz eta aurrera-atzera autoz ibili behar izaten dut. Jende asko ibiltzen da oinez, paseoan, korrika edo bizikletan auzoko errepidean eta elkarrekin izan ditzakegun ezustekoak saihestea ezinbestekoa dela iruditzen zait. Izan ere, batik bat orain, goizago iluntzen duenean, horietako asko, gainean ez dauden arte, ez ditugu ikusten auto gidariok eta horrek istripuak sortzeko arriskua dauka. Badira linternekin edo arropa erreflektoreekin ibiltzen diren oinezkoak zein txirrindulariak eta hori eskertzekoa da, benetan. Beraz, denok kontuz ibiltzeaz gain, nik neuk eskertuko nuke ilunetan ere ageriko izan daitezen neurriak erabiltzea (arropa zein argiak) eta Udalak hori eskatuz seinaleak jartzea ere ez litzateke irtenbide txarra, ezbeharrak saihesteko".




Aparkatzeko topeak jarri dituzte Aita Agirreko aparkalekuan: "Txalo bat eman nahi diot Udalari, Aita Agirreko aparkalekuan topeak jarri dituelako. Lehen ia egunero egoten zen autoreen bat espaloian aparkatuta, ia hormaren kontrairaino, eta ez zen egoten pasatzeko lekurik. Horrela askoz hobeto aparkatzen du jendeak".

1.400 elgoibartar eta 217 mendaroar inguru gaur hasi dira Euskaraldia ariketa egiten

Martxan da Elgoibarren eta Euskal Herri osoan Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioa. Gaur hasi eta abenduaren 4ra arte, euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin egitea izango da Euskaraldian izena eman duten herritarren helburua. Horretarako, aurretik, lehen edizioko rola errepikatuz, Ahobizi edo Belarriprest rola aukeratu behar izan dute. Bigarren edizioan, gainera, herriko entitateek ere izena eman eta era aktiboan parte hartzeko aukera izango dute, ariguneak sortuta.

Euskaraldia Elgoibarren, kopuruei dagokienez:

OHARRA: datu hauek atzo goizekoak dira, izena emateko epea ixteko egun baten faltan jasotakoak.



Lehen edizioko datuekin alderatzen baditugu, datuak behin betikoak ez direla kontuan hartuta:

- Izen emateak behera egingo du, seguruenek. Lehen edizioan baino jende gutxiagok egingo du ariketa.
- Rolak aukeraketari dagokionez, hiru puntu egin du gora Ahobizi rola. Izena eman dutenen % 73k Ahobizi rola aukeratu du; lehen edizioan % 69k aukeratu zuten.
- Genero-desorekari dagokionez, bi puntu jaitsi da lehen edizioan eman zen desoreka. Izena eman dutenen % 60 emakumezkoak izan dira; % 62 izan ziren lehen edizioan.
- Adin-tarteei dagokienez, 16-30 urte artekoen portzentajeak gora egin du hiru puntu; izena eman dutenen %20 dira. 31-50 urte artekoen parte-hartzeak ere gora egin du bi puntu, eta izena eman dutenen % 50 dira. Azkenik, 51 urtetik gorakoen portzentajeak behera egin du bost puntu, eta % 30 dira.

Entitateei dagokienez, Elgoibarren 677 entitate daude eta 104k eman dute izena Euskaraldia ariketa egiteko. Ariguneak sortzea izan da entitateen egiteko nagusia eta 419 arigune sortu dituzte. Sektoreei erreparatzen badiegu, entitate publikoak 12 izan dira; hezkuntzakoak, 9; elkarte eta bestelako gizarte mugimenduetatik, 15; merkataritza eta ostalaritza arlokoak, 55; eta, azkenik, industria- eta enpresa-sektorekoak, 13. Elgoibarko EUSKARALDIA Taldekoek esan digutenez, martxotik bizi dugun pandemia egoerak asko zaildu die entitateekin egon eta Euskaraldia azaltzeko lan-dinamika. Hala ere, entitate asko bisitatu dituzte eta Euskaraldia zer den azaltzeko aukera izan dute, eta azkenean, mordoxka dira Euskaraldia egingo dutenak, beren baitan hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzeko erronkari helduko diotenak.



Zer egin behar duzu...

Ahobizi bazara

AHOBIZI rola aukeratu baduzu, azaroaren 20tik abenduaren 4ra, euskaraz egingo diezu euskaraz ulertzen dutenei.



Baita ezezagunei ere lehen hitza, ulertzen duten ala ez ikusi arte. Hori da hartu duzun konpromisoa. Ariketak iraungo duen 15 egunetan, eraman paparrean eta bistan Ahobizi txapa eta saiatu ariketa ahalik eta ondoen egiten.

Belarriprest bazara

BELARRIPREST rola aukeratu baduzu, azaroaren 20tik abenduaren 4ra, zuk euskaraz ulertzen duzula eta




zuri euskaraz egiteko adieraziko diezu euskaraz dakitenei. Hori da hartu duzun konpromisoa. Ariketak iraungo duen 15 egunetan, eraman paparrean eta bistan Belarriprest txapa eta saiatu ariketa ahalik eta ondoen egiten.

Arigune bateko kide bazara

Ariguneak euskaraz lasai berba egiteko guneak edo taldeak dira. Bertako kide guztiek ulertzen dute euskara eta gehiengoak erabaki du arigunea sortzea. Beraz, lasai berba egin euskaraz. Bestalde, herritarrei dagokienez, hamabost egunotan herriko denda batera bazoaz, edo udal-bulego batera, edota elkarte batera, eta bertan arigune ikurra jarri dutela ikusten baduzu, jakin gune horretan ez duzula arazorik izango euskaraz berba egiteko.



Zuen entitatean, zer lortu nahi duzue Euskaraldian izena emanda?



LETIZIA ASTRAI, Udaltzaingoa: “Udaltzaingo barruan taldeak egin ditugu, eta talde bakoitzak zehaztu ditu bere helburuak. Gure kasuan, hiru lagun gaude gure taldean, eta hirurok euskaraz ulertzen dugun arren, gehiena gaztelaniaz egiten dugu, hirutik bik euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztelako. Euskaraldian zehar saiaturako gara ohitura hori aldatzen. Nik euskaraz egingo diet dena, eta eurek ahaleginduko dira euskaraz erantzuten. Arraroa egingo zaigu eta kostaturako zaigu, baina saiaturako gara”.



INGA SEGUOLA, Gerardo Natenzon hortz klinika: “Gure hortz klinikan Arigunea sortu dugu harreran, bezero guztiek jakin dezaten han euskaraz egiteko aukera dutela. Ni egoten naiz harreran, eta nik lehenengo hitza beti egiten dut euskaraz. Dentista, baina, kanpotarra da. Urte asko daramatza hemen eta euskaraz ulertzen du, baina hitz egiteko zailtasunak ditu. Nahiko genuke Euskaraldian zehar bezeroek berari ere euskaraz hitz egitea, normaltasunez. Bera ere, ahal duen neurrian, euskaraz egiten saiaturako da”.



ESTHER VELASCO, HRI enpresa: “Gure enpresan jende gehienak euskaraz badaki, baina bageaude langile batzuk, neu tartean, euskara ulertzen dugunak, baina hitz egiteko zailtasunak ditugunak. Gustaturako litzaidake elkarrizketa elebidunak areagotzea, hau da, euskaraz dakiteneak ulertzen dugunoi euskaraz hitz egitea, nahiz eta guk gaztelaniaz erantzun. Horrez gain, euskararen presentzia areagotu nahiko nuke enpresan, bai barrura begira eta baita kanporako harremanetan ere. Euskaraldia horretarako une egokia dela uste dut”.



JUAN LUIS ASTIGARRAGA, Astigarraga Kirolak: “Euskaraldian lortu nahi duguna da bezeroek euskaraz egitea gure dendan. Batzuek beti egiten dute euskaraz, baina badaude beste batzuk euskaraz jakin arren, gaztelaniarako joera dutenak, eta gustaturako litzaidake horiek ere euskaraz egitea gurekin. *Belarriprest* txapa jantziko dugu eta pentsatzen dut horrek lagunduko diela bezeroei gurekin euskaraz egiten. Horrez gain, saiaturako gara gure artean ere gehiago hitz egiten euskaraz. Langile batek ez beste guztiek badakigu euskaraz, baina askotan gaztelaniaz egiten dugu eta hori aldatu nahiko genuke”.

Zein hizkuntza-ohitura aldatu nahiko zenituzke? Zeinekin egin nahiko zenuke euskara gehiago?

AHOBIZI



MONTSE ARREGI: “Nire buruari askotan esaten diot noan lekura noala lehenengo hitza beti euskaraz egin behar dudala, baina gero kosta egiten zait hori betetzea. Pentsatzen badut aurrean dagoenak ez dakiela euskaraz, gaztelaniaz egiten diot, eta hori zuzendu nahiko nuke. Askotan gertatu izan zait gainera aurrekoak euskaraz jakitea, eta amorrua eman izan dit. Beraz, Euskaraldian zehar ohitura hori aldatzeko erronka jarri diot neure buruari eta horretarako ahalegina egingo dut”.

BELARRIPREST



IHART GARITAONANDIA: “Aurreko edizioan *Ahobizi* izan nintzen, eta konpromisoa hartu nuen nire lehenengo hitza euskaraz egiteko, baina oraingoan aldatu egin nahi izan dut, eta *Belarriprest* izatea aukeratu dut, batetik, jendeari erakusteko euskaraz egin ahal didatela, eta bestetik, nire euskalduntasun kontzientzia neurtzeko. Hau da, jakin nahi dut *Ahobizi* rola presiorik gabe zenbatetan egiten dudana lehenengo hitza euskaraz. *Ahobizi* izanda oso kontziente izan nintzen ariketan zehar, baina *Belarriprest* izanda jakingo dut benetan nire kontzientzia zenbaterainokoa den”.

AHOBIZI




JOSE NOVA: “Nire bizimoduan euskara erabiltzen dut nagusiki, bai etxean eta baita lanean ere, baina gustatuko litzaidake gehiago erabiltzea, eta gainera, normaltasunez erabiltzea. Egun horietan jendeak egiten du ahalegina euskaraz gehiago hitz egiteko, baina gero ahaztu egiten zaio, eta nik nahi dudana da hori aldatzea. Ez izatea 20 egunetako ariketa bat soilik. Lortu nahi dudana da egun horietan eta gainerako egunetan ere euskara normaltasunez erabiltzea etxean, kalean, lanean eta toki guztietan”.

AHOBIZI



MAIALEN ASTIGARRAGA: “Ia osotasunean euskaraz bizi naiz, baina badauzkat lau edo bost lagun nire inguruan gaztelaniarako joera dutenak, eta haiekin nik ere gaztelaniara jotzen dut normalean. Horiekin euskaraz egitea lortu nahi dut Euskaraldian. Kuadrillako lagunak dira pare bat, eta beste batzuk senideak, eta saiatuko naiz haiekin daukadan ohitura aldatzen. Bai eurak eta baita ni ere euskaraz hitz egiteko gai gara, baina gure arteko hizkuntza ohitura gaztelaniazkoa da, eta Euskaraldirako jarri dudana helburua ohitura hori aldatzea da”.

BELARRIPREST



LUIS AZKUE: “Nire helburua euskara gehiago erabiltzea da. Erdal giroan mugitzen naiz kalean, eta baita lagunekin ere. Umetatik gaztelaniaz egin izan dut beraiekin eta orain ohitura hori aldatzea oso zaila egiten zaigu, gaztelaniaz ezagutu dugulako elkar. Baina nik nahi dut euskaraz gehiago hitz egitea. Urteak egin ditut euskaltegian euskara ikasten eta badakit oraindik asko daukadala ikasteko, baina orain banaiz euskaraz hitz egiteko gai. Euskaraldian, txapa janzten dudanean, saiatuko naiz kalean euskara gehiago erabiltzen”.

BELARRIPREST




GORKA ARCE: “Euskara gehiago erabiltzeko asmoz eman dut izena Euskaraldian. Etxean gaztelaniaz egiten dugu, eta lagunaren artean ere gaztelaniarako joera daukagu, euskaraz badakigun arren. Euskaraldiak irauten duen egunetan gustatuko litzaidake gure artean gehiago hitz egitea euskaraz, eta ni saiatuko naiz. Nik *Belarriprest* txapa jantziko dut, eta gustatuko litzaidake euskaraz dakitenek niri euskaraz egitea”.




Euskaraldia Mendaron

OHARRA: datu hauek atzo goizekoak dira, izena emateko epea ixteko egun baten faltan jasotakoak.



JAVI MUÑOZ, Arno Guraso Elkarte: “Gurasoon hizkuntza ohituretan eragin nahiko genuke batez ere, jakin badakigulako gure seme-alaben lehen erreferenteak geu gara. Euskararen kale-erabilera apalduz doa eta Mendaroko hezkuntza komunitatea osatzen dugunok kezkatuta gaude. Iruditzen zaigu euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko erronka honetan gurasook zeregin handia daukagula eta gure alea jarri nahiko genuke. Gure egitekoa ere bada, estatutuetan jasota daukagulako euskarari bultzada ematea”.



ITZIAR GURBINDO, Puxika: “Jende gehiagorekin hitz egin nahiko nuke euskaraz. Nik neuk euskaraz badakit, baina askoz erraztasun gehiago dut erdaraz, eta ondorioz joera handiagoa daukat erdararako. Herri txikietan gertatzen zaigu gainera asko funtzionatzen dugula etiketekin eta badakigula zeini egin behar diogun derrigor euskaraz eta zeinek duen gure antzera joera handiagoa erdararako, nahiz euskaraz ondo ulertu. Bereziki kasu horietan ahalegindu nahiko nuke euskara gehiago egiten”.

AHOBIZI



LEIRE KEREXETA: “Batetik, unibertsitatean euskara gehiago egiteko konpromisoa hartu dut. Zuzenbidea eta Komunikazioa gradua egiten ari naiz eta euskarako taldea oso txikia da gure mailan eta nahi nuke jende gehiago erakarri euskal adarrera, iruditzen zaidalako oso garrantzitsua dela Komunikazioaren ikuspegitik euskara gehiago egitea. Eta bestetik, nahi nuke inguruko lagun askorekin euskara gehiago egitea. Inguru erdalduna duten lagun euskaldunekin eta euskaraz horrenbesteko erraztasuna ez duten lagunekin ahaleginduko naiz euskara gehiago egiten”.


BELARRIPREST



BORJA RICO: “Euskara ulertzeko gai naiz, baina hitz egiteko dauzkut arazoak. Inguruan, Mendaroko kuadrillan bereziki, euskaldunak dira denak eta nahi nuke haiek niri euskaraz egitea. Horregatik eramango dut paparrean Belarriprest txapa. Lagunek badakite ez naizela oso ondo moldatzen euskaraz egiteko, eta horregatik erdaraz hasten dira sarri ni baldin bago eta ez nuke halakorik nahi. Nik ez diet beti euskaraz erantzungo, eta ziurrenik gehiagotan egingo diet erdaraz, baina gutxienez nahi nuke haiek aldatu beharrik ez izatea euren hizkuntza ni tartean nagoelako”.

Koronabirusaren aurpegiak

Koronabirusak ez du etenik. Eraman ditu batzuk eta estu hartu ditu beste asko. Birusak harrapatzen dituenetako batzuek sintomarik gabe pasatzen dute gaitza, sintoma arinekin beste batzuek, eta badira, eta ez gutxi, ospitaleratu beharra izaten dutenak ere. Gaixo egondako lau lagunen testigantzak batu ditugu gaur: Antonio Rodriguez eta Gorka Garate elgoibartarrenak eta Amaia Lopetegui eta Eukene Gurrutxaga mendararrenak. Nork bere kontakizuna du, baina badira errepikatzen diren sentimenduak. Beldurra eta ingurukoekiko kezka dira horietako bi. “Belarriak eta haginak ere ikusi dizkiogu otsoari”, dio Rodriguezek. “Gugaitik konfinatu behar izan zituzten familiak nituen uneoro buruan”, dio Gurrutxagak. Eman diote buelta, baina ondorioak utzi dizkie gaitzak gehienei.



- AINARA ARGOTIA -



AMAIA LOPETEGI

“Haizeak orbela erabiltzen duen bezala erabili nau birusak. Ez nintzen ni, ez nintzen ezer”

Irailaren 10ean iritsi zen koronabirusa Amaia Lopetegiren etxera. “Zerbait bazuela esanez hasi zitzaigun alaba, eta adarra jotzen jardun gintzaizkion gu, koronabirusa izango zuela-eta, ez baitzen besterik entzuten orduan ere”. Biharamunean (barikua), baina, gorpuzkera txarrez oheratu zen Amaia bera ere, eta burukominak estu hartu zuen goizaldera. Larunbaterako joan zitzaizkien bromarako haizeak. “Seguru nengoen. Harrapatu gintuen birusak, baina asteburutan Mendaron ambulatorioa itxita izaten dugunez, astelehenera arte etxean gelditzea erabaki genuen, badaezpada”. Domekarako, baina, okerrera egin zuten biek, eta semea ere hasi zen sintomak agertzen. Eta arratsalde hartan bertan ospitalera igo ziren hirurak. PCR probak egin zizkieten eta biharamunean iritsi zitzaizen emaitza: ama-alabek, positibo, eta semeak, negatibo. Eta konfinatu ziren etxeko denak.

“Ezin nuen sinetsi semearena, sintoma berberak zituztelako alabak eta biek: 38tik gorako sukarra, burukomina eta begiak mugitu ezina, buruarekin batera ez bazen. Ni ez naiz sekula 37,1eko tenperaturatik pasa, baina gorputzaldi oso txarra neu-

kan; Azkoitin *mangaixue* esaten dioguna, deneko mina. Ez neukan ezertarako indarrik”. Emaitza jakitzeaz batera, itxi ziren ama-alabak logela banatan, eta aita-semeak laga zituzten libre etxe barruan, baina semeak sintomekin jarraitzen zuenez, martitzenean PCR proba egin zioten berriro, bai eta senarrari ere, estreinakoz. Eta biek eman zuten negatibo [Hiru proba egin dizkiote guztira semeari eta hiruretan eman du negatibo, baina antigorputzak dituela agertu zaio gerora]. “Ordurako alabak dastamena eta usaimena galduak zituen guztiz, baina hasia zen apurka-apurka hobera egiten. Hartzen genuen Efferalgan, eta aurrera, baina hala ere, ohean jarraitzen genuen. Nik neuk ezin nituen eskuko atzamarrak ere bildu”. Astebete pasatu zuten hala, baina lehenengo sintomak agertu eta astebetetera sukarra eman zuen berriro Amaiak, “dezima batzuk”. Ez zitzaion parte onekoa iruditu Amaiaren ahizpari, eta iloba medikuari deitu zion. “Ospitalera igotzeko agindu zidan ilobak”. Amaiak orritzen du ezin zuela tente egon eta arnasa hartzeko ganorarik ere ez zuela. “Ezertarako ez nintzela nengoen. Haizeak orbela erabiltzen duen bezala erabili ninduen birusak”. Eta igo



zuten etxekeok ospitalera. Egin zizkioten han ohiko probak, atera zioten odol-arteriala odolean zuen oxigenoa neurtzeko, eta piztu ziren alarma gorriak. “Deskuidatu egin zirela esan zidaten, nik ezin nuela eman nuen emaitza eman eta errepikatu egin behar zidatela proba [%6]leko emaitza eman zuen. PaO₂a 60 mml lg baino txikiagoa denean, arnasa gutxiegitasuna diagnostikatzen dute]. Bigarrenegoz emaitzekin etorri zitzaizkidanean zuzenean oxigenoa jarri zidaten. Pneumonia nuela esan zidaten eta arnasa gutxiegitasuna”. Ez zuten Donostiara bidali, hala ere.

“Apal-apal nengoen ni ohatilan. Ez nintzen gai arnasestuka hasteko ere. Esan zidaten arnasestuka hasi banintz konturatuko zirela oxigenoa falta nuela, baina nik ez nuen horretarako gonorarik ere”. Eta ingresatu zuten, bakartuta. “Amesgaizto baten parekoa” zen bizitzen ari zena. “Gelan bakar-bakarrik nengoen, eta erizainak eta erizain-laguntzaileak astronauta jantzita sartzen ziren gelara. Sekulako neurriak bete behar dituzte, eta zaila da beraien ordutegitik kanpo erizainen bat gelara sartzerara. Alferrik joko duzu tinbrea han. Eta jakina, egin behar duten esfortza zenbaterainokoa den ikusita, norbera ere ahalegintzen da ez deitzen. Bakardadea izugarria da. Inutilduta nengoen, minez, baina bitartean, burua lanean ari zitzaidan. Uste nuen ezindua gelditu nintzela betiko; edo astebetean hamar urte zahartu nintzela eta sekula ez nuela gehiago ospitaleratu aurretik nuen sasoia izango”. Galdetzen zioten dutxatu ote zen, eta Amaiak ezetz. Etortzen zitzaizkion gosari-hondarrak jasotzera, eta estalkia kendu gabe topatzen zuten Amaiaren gosaria, utzitako moduan. “Haien lan erritimoa hausten nuen nik. Hasieran ez nintzen gai jateko ere, baina ez zidaten ulertzen, ez nindutelako ikusten arnasestuka. Erantzun ere ezin nien egin batzuetan, ez neukan hitzik. Koronabirusaz ingresatuta dagoenarentzat sufrikarioa da, baina langileentzat ere oso-oso gogorra da”.

Ingresatu ondorengo eguna oxigenoarekin eman zuen Amaiak, eta “tira, nahiko ondo”, baina igande iluntzean kendu egin zioten, biharamunean odoleko oxigeno maila neurtu behar ziotelako. “Oxigenoa kendu zidatenean, lo hartzen nuen baikoitzean arnasa hartu ezinda esnatzen nintzen, eta itolarria hain zen handia erabaki nuela lorik ez egitea. Tormentu bat izan zen. Burua lehertu behar zitzaidan, ezin nuen arnasarik hartu, ez nintzen ni; ez nintzen ezer. Sinetsita nengoen elbarri gelditu nintzela”. Egunero Amaiaren etxe aurretik pasiaran ibiltzen den erizainak ere ez zuen ezagutu hirugarren egunera arte. “Nik bera ez ezagutzea, tira, *Prestige*-n garaian bezala jantzita sartzen zelako gelara beti, baina berak ere ez ninduen ezagutu ingresatuta nengoela esan zioten arte”.

Bronkozabaltzaileak eta kortikoideak eman zizkioten eta

hasi zen hobera egiten. Bi egunez sukarrrik eman ezear, etxera bidaliko zutela agindu zioten eta poztu zen Amaia. “Nik etxera nahi nuen. Ni nengoen gelan pertsiana hondatua zegoen eta egunez lo egiteko, kamiseta batekin estaltzen nituen begiak; Esan zidaten, gainera, hilabeteak zeramatzala pertsiana hark hala. Azkeneko egunean laguna ekarri zidaten gelara. Pneumonia zuen, baina fisikoki ez zegoen horren gaizki ere, eta, ni aldiz, pott eginda nengoen”. Ostegun batez eman zioten senda-agiria. “Argalduta eta uzkur-uzkur eginda ekarri ninduen alabak etxera eta alabari berari entzun nion lagunen bati telefonoz esaten ama erdia itzuli ziotela”. Senda-agiria jaso arren, beste hamar egunez konfinatzeko agindu zioten, ez irteteko logelatik. “Berdin zitzaidan, ni ez nintzelako ohetik jaikitzeo gai”. Etxera etorri eta okerrera egin zuen. Zorabioekin hasi zen eta etorri zitzaion medikua etxera, neurriak hartuta. “Lehenaz gain, bertigoak nituela esan zidan. Etortzera ausartu izana eskertu nahi diot”.

22 eguneko kalbarioa

Urriaren 4an amaitu zuen konfinamendua eta jaikitzen zela egin zuen, buruak aginduta. Hankek, ordea, ez zioten erantzuten. “Ohetik jaiki, sofan jartzeko”. Ordurako sintomarik ez zeukan, “eztul pattal bai” salbu. 22 egun zituen ohetik jaiki gabe, baina, eta gaitzak faktura utzia zion. “Hitzak ere falta zitzaizkidan; xelebreena horixe zen”. Hizketan hasi eta alabak bukatu behar izaten zizkion esaldiak. 22 egunetan inorekin hitz egin gabe zegoen esate-baterako eta normala ere bazen. Hala ere, zortekoa izan dela dio. “Irailean, ez zegoen gaur beste gaixo ospitalean eta arreta oso ona izan nuen. Nire seme-alabak ere helduak dira, eta ez nuen kezkatu

beharrik izan. Erruki diet ume txikiak izanda gaixotzen direnei!. Nik 59 urte dauzkat, baina asko ibiltzen naiz mendian eta eta sasoiko nengoen. Hala uste nuen behintzat. Ez nuen asko usteko halako paliza emango zidanik honek”.

Gaur egungo egoeraz ezer gehitzerik nahi duen esanda, ez du zalantzarik egin. “Eskoletara begira gaude, baina nik garbi daukat ikastetxean ez direla kutsatzen ikasleak. Sarrean eskuak garbitzen dituzte, mahaiak distantziara jarrita dauzkagu eta jaikitzen diren aldiro mahaiak eta jarlekuak garbitu behar izaten dituzte. Lekurik seguruenak eskola da, baina atetik irteten diren bezain azkar hazten zaie dena. Inkontzientzia puntu bat ere izaten da gaztetan”. Nolanahi ere, gazteak baino “okerrago” ari direnak ikusten ditu: “Ezin dut negazionistekin. Hau ez da txantxetako kontua. Esango nieke osasuna daukagula jokoan, euren eta besteona, eta ezin dela arduragabe jokatu. Birus hau luzerako izango dugu, baina sikiera gera dadila gure artean lagun bezala”.

“Argalduta eta uzkur-uzkur eginda ekarri ninduen alabak ospitaletik eta ama erdia itzuli ziotela esanez entzun nion”

EUKENE GURRUTXAGA

“Xabatek positibo eman zuelako gelakide guztiak etxeratu behar zituztela jakin nuenean mundua erori zitzaidan”

Erreakia die Amaia Lopetegik birusak haur txikiekin harrapatzen dituztenei. Eukene Gurrutxaga eta Igor Reyren kasua da. 13, 10 eta 3 urteko hiru semeeren guraso dira [Manex, Xabat eta Unai], eta biek eta semeetako batek pasatu dute gaitza. Igorrek eraman zuen birusa etxera. Positibo eman zuen batekin kontaktua izana zuen Igorrek, baina ez zuten haren kontaktu estuetan sartu. Hala ere, Igorrek bazuen kezka eta ordura arte ez bestean mugatu zuen bere harreman-sarea eta urrundu zen inguruko kalteberengandik. Baina iritsi zen, iritsi behar ez zuena. Kontaktua hori izan eta astebete orduko, sintomak igarri zituen (gorputzaldi txarra eta sukar txikia lehenengo, eta dastamena eta usaimenaren galera gero) eta biharamunean egin zioten PCR proban iritsi zitzaion konfirmazioa. Egun horretan bertan igarri zituen lehenengo sintomak Eukenek ere: “Giharretako mina batez ere [gerora usaimena eta dastamena galdu zituen]”. Biharamunean jakin zuen positibo zela.

Bi seme gazteenek ere gaitzaren sintoma arinak igarri zituzten amak positibo eman zuen egun berean. “Egoera normal batean ez genien garrantzirik emango, baina etxean zein panorama genuen ikusita, seguru geunden positibo emango zutela biek”. Eta amak PCRa egin biharamunean, artean emaitzaren berri ez zutenean, eraman zituen amak berak hiru semeak PCRa egitera. Ez du ahazteko egun hori. “Gurasoak positibo izanda, esan ziguten ezingo genituela guk eraman umeak proba egitera, baina bakarrik joateko adinik ere ez dute eta horregatik esan ziguten etxera etorriko zitzaizkigula laginak hartzera. Azkenean, baina aztarnariak ez ziren zuzendu euren artean eta txanda eman ziguten. Eta neuk eraman nituen. Artean ez nekien positibo eman nuenik, baina segurutzat neukan hala izango nintzela. Gogorra egin zitzaidan, sentitzen nuelako behar ez nuen zerbait egiten ari nintzela eta ezin izan nielako semeei proba egiten zuten lekuraino lagundu”. Hiru semeetatik erdikoak eman zuen positibo, eta zaharrenak, dudakoa. Txikiak, sintoma nabarmenak zituenak, berri, negatibo. 48 ordura errepikatu zioten proba zaharrenari, eta bide batez txikiari ere egin zioten, sintomekin jarraitzen zuelako. Biek eman zuten negatibo. “Unairen kasua egiten zitzairen sinesgaitzera aztarnariei eta hirugarren proba bat eginarazi zioten, 48 ordura. Neuk eraman nuen, baina orduan ere ezin izan nion lagundu, positibo emana nuelako, eta apartetik egon nintzaion begira nola egiten zuen ilaran aurrera. Erizainei apartetik oharta-



razi nien bakarrik zegoela eta oso ondo portatu ziren”. Prozesu osoan “laguntza handia” jaso dutela nabarmendu du, etxean hiru kasu positibo izanda ia egunero deitu dietelako aztarnariak ez bada, pediatrak. “Zainduta sentitu gara”. “Zortedunak” ere badirela dio, etxean pasatu dutelako gaitza, paracetamola eta ibuprofenoa hartuta. “Ez da erraza, hala ere, norbera pattal dagoenean inguruan energiak betetako hiru ume bueltaka izatea”. Hilabete pasatu da gaixo egon zenetik, baina oraindik ez du dastamena eta usaimena guztiz errekueratu. “Gutxienekoa da hori, hala ere”.

Konfinatzearen kontuak

Gogorra zer egin zaion galdetuta ez du dudarik. “Inguruan sortu genuen zalaparta”. “Badakit ez dela gure errua, geuk ere nonbaiten harrapatuko genuelako birusa, baina Xabatek positibo eman zuelako gelakide guztiak etxeratu behar zituztela jakin nuenean mundua erori zitzaidan. Badakit aztarnariaren deiak zelako egonezina sortzen duen eta zelako *filigranak* egin behar izaten ditugun familietan umeak etxeratzen dizkigutenean” [Mendaro ikastolan lehenengo kasua izan zen]. Igdanean sumatu zituen Xabatek lehen sintomak eta halaxe aitortu zion aztarnariari amak. “Sintomak hasi aurreko 48 orduetan harremana izan duenak sartu zituzten kontaktu estuetan: gelakide guztiak eta ondoko gelako ume batzuk. Gela osoa konfinatzea eurek erabaki zuten, eta beste gelako zerrendatik semeak berak apartatu zituen bere kontaktuak. Esan ere egin nion aztarnariari: ‘Jakinez gero hau hola zela sintomak astelehenean agertu zitzaizkiola esango nizun’. Baina ez, oker nongoen. Ezin gara arduragabeak izan”.

ANTONIO RODRIGUEZ

“Telebista piztu eta hildakoak baino ez nituen ikusten han-hemen. Beldur handia pasatu nuen”

Koronabirusa harrapatzen aurreneta-koak izan ziren Antonio Rodriguez eta haren etxeako Elgoibarren. Martxoaren 17an hasi zitzaion emaztea sukarrarekin. “Enpresan azkeneko bilera presentziala egitekoa ginen protokoloa zehazteko eta deitu nien esanez emazteak sukarra zeukala. Etxean gelditzeko agindu zidaten. Orduan ez zituzten PCRak egiten”. Bi egunera hasi zen bera “hotzeria baten sintomekin, baina sukar handiarekin”, eta sendagileari deitu eta COVID-19a izan zezaketela ohartarazi zien. “Baja eman zidan neri ere eta etxean gelditzeko agindu”.

14 urteko semea eta orduan 2 urte egin barik zituen alabaren gurasoak dira, eta “gogorra” egin zitzairen. “Gero eta okerrago geunden, 39tik gorako sukarrarekin biok, baina anbulatoriora deitzen genuen eta paracetamola hartzeko esaten ziguten. Koinatuak ekartzen zizkigun etxeraino erosketak, eta leihotik ematen zizkigun. Sei-zazpi egun egin genituen hala, egunean lau bat paracetamol pilula hartuta, baina okerrera egiten ari ginen, eta jateari ere laga genion”. Egoera horretan, zortzigarren egunean, Antonioren emaztea ospitalera eraman zuen ahizpak. “Antibiotikoak errezetatu eta etxera bidali zuten, PCR probarik egin gabe, orduan ez zituztelako egiten. Antibiotiko haiekin, baina, hasi zen hobera egiten. Nik, aldiz, segitzen nuen okerrera egiten. 5-6 egun neramatzan ezer jan gabe, oso ahul sentitzen nintzen eta arazoak nituen arnasa behar bezala hartzeko. Deitu nion medikuari eta ahal nuen moduan Mendarora joateko agindu zidan”.


Bederatzi egun ospitalean

Koinatuak eraman zuen ospitaleko ateraino. “Bera ezin zen sartu. Ia lau hankatan sartu nintzen ospitalera, eta itxaroteko gelan zain nengoela, zorabiatu egin nintzen. Esnatu nintzenerako ohe batean nengoan, sudurretik tutuak sartuta eta besoak zulatuta. Medikuei entzuten nien larri nengoela esanez. %20an neukan oxigenoa eta Donostiara bidali behar nindutela esanez entzun nien, baina ez”. Alde biko pneumonia diagnostikatu zioten eta erreanimazio gelan eman zuen egun oso bat Antoniok, eta bi egun egin zituen oxigeno makinari lotuta. “Haize hotza sentitzen nuen sudurrean. Ez zitzaidan atsegina egiten, baina zorionez ez nuen trakeotomia egin beharrik izan. Horixe gogorarazten zidan beti erizainak [Aireari igarobidea zabaltzeko, trakean zulo bat egitean datzan ebakuntza da trakeotomia]”. Gela batera eraman zuten



gero. “Eremu zikina deitzen zioten gelara. PCRa egin zidaten eta biharamunera arte han egon behar nuela esan zidaten, bakarrik eta gelatik inora irten gabe. Gai ere ez nintzen ni inora joateko. Lo egin nahi nuen, baina ezin. Lo aldatu dit gaitzak. Lo onekoa izan naiz beti eta birusa harrapatu nuenetik lo egiteko arazoekin nabil”. Biharamunean eraman zuten gelara. “Gorka Garate herrikidearekin jarri ninduten. Berak bi egun zeramatzan han. Etorri zen erizaina eta esan zidan alde biko pneumoniarekin jarraitzen

nuela eta tratamendu gogorra jarri behar zidala. ‘Hau bonba bat da. Agiria sinatu behar duzu hartzeko, esperimentatzen ari dire-lako, baina badakigu Txinan oso emaitza onak ematen ari dela’. Egunean 11 pilula hartzen egon ginen Gorka eta biok, eta arratsaldero birritan ziztaten gintuzten sabelean, tronboak-eta saihesteko. Gomitolarritz eta beherako handiarekin egon ginen biok, komunerako txanda hartu ezinda”. Bederatzi egun egin zituen ingresatuta. “Gelan laguna izan dut eta telefonoa eskura, baina hala ere, gogorra da. Telebista piztu eta hildakoak besterik ez genituen ikusten han eta hemen, eta beldur handia pasatu nuen. Hau ez da brometako kontua. Gelara sartzen ziren profesionalak ere goitik behera mozorrotuta sartzen ziren, ikaratzekoa zen. Bekokian ekartzen zuten izena jarrita eta orduerdi behar izaten zuten arropa guzti haiek janzteko eta erantzeko”. Ospitalea laga zuen eguna ez du ahazteko. “Erizain eta mediku guztiek txaloka agurtu ninduten. Anbulantziak ekarri ninduten etxera”. Etxera iritsi eta beste 15 egun egin behar izan zituen konfinatuta. “Indarrak hartzeko ere ondo etorri zen, oso ahulduta laga ninduelako”. Eman dio buelta egoerari, baina gaur gaurkoz, arnasa falta duela igartzen du eta orbana du birikan. “Bete egiten naiz”. Emazteari ere gertatzen zaio. “Giharretako minez dabil ordutik. Indargabetu egin gaitu birusak eta igartzen dugu, ez garelako lehen bezain aktiboak”.



Gorka Garate eta Antonio Rodriguez

GORKA GARATE

“Martxoan ez zuten harrapatu etxeok ni nengoen moduan egonda eta orain harrapatu dute. Ez sinistekoa”

Ezkerreko birikan orbanak utzi dizkio koronabirusak Gorka Garateri ere. Zaila du pasatakoa ahazten beraz. Orain, gainera, bigarrengoz sartu da koronabirusa eurenean. Emaztea, aitagarreba, amagarreba eta amama ere harrapatu ditu birusak. Nola ahaztuko du, bada! Martxoan harrapatu zuen berak gaitza. Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri biharamunean, martxoaren 15ean, hasi zen sukarrarekin eta egunez egun, tenperatura handiagoa markatzen zion termometroak, 39raino iristeraino. Usaimena eta dastamena ere galdu zituen. Bost bat egun egin zituen etxean sukarrarekin, nora jo ez zekiela, “oso urduri”. Bi ume txikiren aita da Gorka, eta umeen logelan itxi zen, badaezpada. “Ez zen egoera erraza izan. Gaixo nengoen eta oso urduri, okerrera egiten ari nintzelako eta notizietan dena hildakoak zirelako. 6., 7. eta 8. egunak ahazteko modukoak izan ziren”. Osakidetzak jarritako telefono zenbakian ematen zizkieten argibideek ez zuten lar lasaitzen, baina berez, han esandakoei jaramon eginez gero, hala egon beharra zuen. “Koronabirusa izan duen batekin harreman esturik izan ez baduzu eta arnasa falta duzula igarri ezean, lasai’ esaten zidaten behin eta berriro. Baina ni ez nengoen lasai”. Zer egin ez zekiela sentitu zen egun askoan. Medikuarekin hitz egiteko modurik ere ez zuen topatzen. “Anbulatorioa itxita zegoen, eta deitzen nuen Osakidetzako telefono zenbakira eta lineak okupatuta ematen zuen beti.

Ordu’terdi baino gehiagoan ere egon nintzen etengabe deika”. “Halako batean” lortu zuen oheburuko medikuarekin hitz egitea eta Mendarora bidali zuen hark zuzenean, horrenbeste egun sukarrarekin egotea ez zela parte onekoa esanda.

Plakak egin zizkieten ospitalean eta orbanak ikusi zizkieten bi biriketan. Alde biko pneumonia zuen. Oxigeno saturazioa neurtu zioten, eta %95-97an eman



zuen. “Normal antzean”. Odola atera zioten gero, odolean zuen oxigeno maila neurtzeko eta baxu eman zuen. “Ez dakit zer eman nuen, baina hori izan zen ni ospitaleratzeko arrazoa, pneumonia ematen zuten asko etxera bidali zituztelako tratamendua jarrita”, zehaztu du. Eta ospitaleratzeaz batera, arnasa hartu zuen Gorkak. “Orduan lasaitu nintzen. Behintzat, han, zainduta sentitzen nintzen. Etxean zer daukazun ez dakizula egotea baino txarragorik ez dago”. Hamar

egun egin zituen ingresatuta. “Ez naiz okerren egon denetakoa izan”, dio. Lehenengo bost egunak bakarrik egin zituen gelan, eta azpimarra jarri du hor. “Egunean behin sartzen ziren erizainak gelara, goitik behera tapatuta. Norekin ari zinen ere ez duzu ikusten eta egonezin handia sortzen du. Antsietate halako bat. Gogorra da haientzat ere. Askotan jarri naiz pentsatzen zer ote den hori ingresatu behar izaten dituzten adinekoentzat eta umeentzat, edota barruan duten etxeokarekin komunikatu ezin dutenentzat. Ni gaztea naiz, telefonoa eskura izan dut, eta ez dut kanpokoekin komunikatzeko arazorik izan. Hori gabe, ez dut pentsatu nahi zer izango litzatekeen. Etsiko nuen”.

Koronabirusa, berriro etxean

Eta orain, Gorkak koronabirusa gainditu eta zortzi hilabetera berriro sartu zaie birusa etxean. Berak positibo eman zuenean, emazteak klinika pribatu batean egin zuen gaitza pasatu ote zuen ikusteko proba eta negatibo eman zuen; ez zuen antigorputzik garatu. “Orduan ez zituzten gaur beste PCR egiten. Umeek gaitza pasatu duten ere ez dakigu guk”. Dena zen prekarioa orduan. Baina, orain, bai, orain badute diagnostikoa. Gorkaren emazteak, haren gurasoek, eta Gorka beraren amamak positibo eman dute PCR proban. “Martxoan ez zuten harrapatu ni nengoen moduan egonda, eta orain harrapatu dute. Ez sinistekoa”. Kezkatuta hitz egin du Gorkak. “Datuek argi hitz egiten dute. Kasu asko daude eta egoera ez da ona. Ospitaleak ere ari dira saturatzen eta horrek kezkatuta nauka. Gero badaude beste neurri batzuk eztabaidagarriagoak direnak, baina egoera ona ez dela begi bistakoa da eta iruditzen zait arduraren handiagok bete beharko genituzkeela jartzen dizkiguten arauak”. Gorka bera irailan behatu zuten azkenekoz, eta hilabete geroagorako ziatu zuten berri, birrikako orbanak zer-nola zeuzkan ikusteko, baina “dena geldidago” orain. “Nola egongo ote dira pneumologoak orain!”, dio fokua Osakidetzako langileengana zuzenduz.



Mendaroko ospitaleko gelan.

► BRUNO GUERRERO

'ATRÁPAME SI PUEDES' SAIOKO PARTAIDEA

Euskal Telebistak eman duen saririk handienetarikoa irabazi berri du Bruno Guerterok (Extremadura, 1972) 'Atrápame si puedes' lehiaketan. 147.000 euro poltsikoratu ditu. Tornularia da ogibidez, baina betidanik gustatu izan zaizkio galdera-erantzun estiloko lehiaketak. Umetatik ikusi izan ditu telebistaz, eta 2008an animatu zen estreinakoz horietako lehiaketa batean parte hartzera. 'El Gran quiz' izan zen bere estreinako lehiaketa, eta ordutik, sarritan parte hartu izan du Patxi Alonsok gidatzen duen ETB2-ko lehiaketan. Eskura izan du behin baino gehiagotan sari potoloa, eta azkenean lortu du irabaztea. Pozez zorutzen dago, bai sariagatik eta baita herritarrek erakutsi dioten babesagatik ere.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ 147.000 euro. Zer sentitu zenuen azken erantzun zuzena eman eta zerutik euroak erortzen hasi zirenean?

Une horretan lasaitasuna sentitu nuen. Ordu asko sartu behar izan ditut hau lortzeko eta gogorra izan da. Ez da lehiaketarik zailena, baina denetik jakitea eskatzen du, eta gai bazuetan nahiko makal nengoen. Adibidez, Estatu Batuetako historiari buruz sarritan galdetzen dute eta gai horri ordu asko eskaini dizkiot. Ezin nuen sinetsi, pozez kabitu ezinda sentitu nintzen.

◆ Behin baino gehiagotan izan duzu saria eskura, eta azkenean lortu duzu.

Bai, bi aldiz izan nuen esku-eskura sari nagusia, baina bietan ihes egin zidan, eta larrituta nengoen. Baten, gainera, banekien erantzun zuzena zein zen, baina ez zitzaidan erantzun zuzena etorri. Diruarekin itsututa nengoen eta urduritasunak ez zidan batere lagundu. Horrelako lehiaketetan diruaz apur bat ahaztu eta gozatzea ere oso garrantzitsua da. Lasaitu eta gozaten hasi nintzenean hasi nintzen benetan ondo jokatzeko.

◆ Oraingoan, baina ez zenuen huts egin. Indio sioux baten izena eskatu zizuten, eta asmatu zenuen.

Hiru indio sioux ezagutzen nituen. Bata *Nube Roja* zen, baina izen hori galderan bertan zetorren, beraz, ezin zen erantzun izan. Bestea *Toro Sentado* zen, baina ez zen zuzena, badaezpada, *Jeronimo* ere bota nuen eta azken aukera bezala *Caballo loco* neukan eta huraxe izan zen erantzun zuzena.

◆ Nola egiten duzu hainbeste informazio gordetzeko buruan?

Ba ez dakit, baina erraztasuna daukat datuak eta munduko tontokeriarik handienak gogoratzeko. Zerbaitek interesa pizten badit, gustatzen zait gaien sakontzea. Une honetan *Un kilo de cultura general* liburua irakurtzen ari naiz, beste lehiaketa baten ezagutu nuen lagun batek gomendatuta, eta liburu horretan in-



“Umetatik ditut gustuko galdera-erantzun estiloko lehiaketak”

formazio pila bat dator. Datu pila bat daude, eta datu bakoitza sakontzen hasita, ez da erraz amaitzen haria. Gaur Interneti esker oso erraza da informazioan sakontzea. Kuriositate handia izan dut beti, eta erraz geratzen zaizkit gauzak gogoan.

◆ Nolako esperientzia izan da?

Oso-oso ona. Patxi Alonsok bikain gidatzen du saioa, baina atzetik sekulako lantaldea dauka. Koronabirusaren eraginez dinamika apur bat aldatuta dago aurtengo edizioan: astelehenetik eguenera izaten da ohiko programa eta barikutik domekara *Conquiseko* lehiakideena. Horrez gain, partaide bat gutxiago egoten da orain, distantziak mantendu ahal izateko. Ni zortzi astez egon naiz, 32 egunez. Astebeterako joan nintzen, baina jarraitzeko

aukera ematen zigutenez, hantxe egon naiz saria lortu dudan arte. Ez da erraza izan lanarekin uztartzea. Askotan gauez egiten dut lan, eta zuzenean joaten nintzen Miramonera grabatzera, gaupasa eginda. Lanetik irten, dutxa bat hartu eta lorik egin gabe lehiaketara. Bukaerarako oso nekatuta nengoela igaritzen nuen, eta gainera oso exijentea naizenenez, nire burua izugarri presionatzen nuen.

◆ Nondik datorkizu lehiaketetarako zale-tasuna?

Umetatik ditut gustuko galdera-erantzun estiloko lehiaketak. 9 urte nituela apendizetik operatu ninduten, eta nire kezkarik handiena zen bariku hartan ezin izango nuela *Un, dos, tres* saioa ikusi. Ni umea nintzenean bi telebista kate bakarrik zeuden, eta horiek ikusten genituen, eta haietako batean ematen zuten *El tiempo es oro*. Izugarri gustatzen zitzaidan. Orain dela 12 urte animatu nintzen *El gran quiz* lehiaketara, eta hara joateko ikasi behar izan nuen materialak asko lagundu dit oraingorako ere. 40.000 galderako txosten bat eman zidaten, eta 38.000tik gora ikasi nituen buruz.

◆ Ba al daukazu beste lehiaketaren batean parte hartzeko asmorik?

Agian bai. Esan zidaten programa bereziren bat egiten dutenean deituko didatela, eta gustura itzuliko naiz. *Boom* lehiaketara joateko taldea osatzen saiatzen ari naiz, baina ez dago erraza. Pare bat konbentzituta ditut, baina falta zaigu laugarren bat. Saiatu nintzen *Ahora Caigo* lehiaketara joaten ere, baina casting-a oso gaizki egin nuen eta ez zidaten deitu. Betaurrekoak ahaztu zitzaizkidan eta ez nuen piparririk ere ikusten! *Pasapalabra* lehiaketarako ere egin nuen Bilbon casting-a, baina ez ninduten aukeratu, eta *Saber y Ganar* lehiaketara ere idatzi nuen gutuna, baina han esan zidaten goi mailako ikasketak dituzten lehiakideak nahi zituztela. Ez zitzaidan baxterez gustatu erantzuna, ; gauzak esateko beste modu batzuk ere badaude. Ikasketarik gabeko jendeak ere ezagutza handia eduki dezake. Sekulako amorrua eman zidan, eta orduetik ez dut lehiaketa hori ikusi. Nik ez nuen ikasteko aukerarik izan; etxean dirua behar zen eta oinarritzko ikasketak soilik egin nituen. Gazte hasi nintzen lanean, etxean lagundu ahal izateko. 15 urte nituela Madri-

“Askotan gauez egiten dut lan eta zuzenean joaten nintzen grabatzera, gaupasa eginda”

lera joan ginen, eta gero Euskal Herrira. Altzolara iritsi nintzen, eta ondo baino hobeto bizi naiz bertan. Niri korrika egitera irtetea gustatzen zait, eta horretarako oso leku lasaia da Altzola.

◆ Zer egingo duzu irabazitako sariarekin?

Momentuz etxearen hipoteka kendu eta lasai bizi. Oso ondo etorri zait dirua, egia esanda, justuan genbiltzan-eta. Haziendak %40 kendu dit, baina hala ere, diru kantitate polita ekarri dut etxera. Ga-

bonetan bidai bat egitea ere nahi nuen, baina koronabirusaren kontu honekin zaila ikusten dut.

◆ Saria irabazi zenuela bada hilabete inguru. Zaila egin zaizu isilik gordetzea?

Oso zaila. Etxera etorri nintzenean pentsatu nuen emazteari ere ez niola esango, baina ezin izan nuen eutsi. Seme nagusiari ere kontatu nion, baina beste inori ez. Jendeak programa ikusi zuenean zorion mezuak iristen hasi zitzaizkidan toki guztietatik. Semeari eskatu nion whatsapp kudeatzen laguntzeko, ezin nituelako mezu guztiak erantzun. Kanean ere jende pila batek geratu nau, eta denek zoriondu naute. Nire emaztearen ahizpa gaztea lehiaketaren jarraitzaile sutsua da, eta ikusi zuenean deitu egin zidan esanez nola ez nion kontatu!. Baina ezin nuen! Horrela gainera, gusturago bizi zuen nire garaipena. Ezagutzen ez dudan jendearen mezuak ere iritsi zaizkit. 85 urteko amona batek idatzi zidan, eskuz, etxera. Nire helbiderik ere ez zuen jarri “Altzolan bizi den Bruno Guerrerorentzat” jarri zuen azalean eta postariak ekarri zidan. Gauza oso politikak idatzi zituen, baina ez zuen bere helbiderik jarri eta ezin izan diot erantzun. Pena izan da. Saiatu naiz jaso ditudan mezu guztiak erantzuten, baina zoratzekoa izan da.



Bruno Guerrero saria irabazi berrian.

Arrastua hartu: Antzeman; nondik nora doan asmatu.
Arrastorik ere etxauat hartzen hire problemiari! Baita Ezeren aztarrenik ez izan.

Elgoibarko bertso eskola bueltan da, lau urteko etenaldia eta gero

Elgoibarko Izarrak 2011n abian jarritako bertso-
 eskolak 2016an bukatu zuen bere ibilbidea,
 16/17 ikasturterako haur gutxi eman zutelako
 izena. Elgoibarko Udalaren asmoa proiektua indar-
 berritzea da eta horretarako berriro jarri du abian ber-
 tso-eskola, Gipuzkoako Bertsozale elkartearekin
 elkarlanean. Elgoibarko bertso-eskolak 8-12 urte bi-
 tarteko 11 ikaslerekin berrekin dio bideari. Astean
 behin biltzen dira ordubetez Aita Agirre kulturgunean
 eta Eneko Beretxinaga soraluzearra aritzen da ira-
 kasle lanetan. Beretxinagak bertsoarekin duen harre-
 mana transmisioarekin lotuta egon da, bereziki,
 bertso-eskoletan, aisialdian eta hezkuntza arautuan,
 Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak eta hezkuntza arau-
 tuko irakaslea baita. Bera da Elgoibarko Ikastolan eta Herri Eskolan bertso-
 gintza eta ahozko kotasuna lantzeko saioak ematen dituen
 irakaslea eta 263 ikasle ditu bere ardurapean. Elgoibarko Udalak ahozko komunikazioa bertsoaren bidez lantzeko egitasmoa jarri
 zuen abian 2004an Gipuzkoako Bertsozale elkartearekin, Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin lankidetzan. Urtez urte, LH4ko eta
 LH5eko 250 ikasle inguruk parte hartu ohi dute bertso-
 gintza lantzen eskoletan, eta horri jarraipena eman nahian, biziberritu nahi
 izan du Udalak bertso-eskola.



Erronkak: egonkortzea eta sendotzea

Udaletik aurreratuta dute aurrera begira bertso-
 eskola egonkortzea eta sendotzea izango direla
 erronka nagusiak. Hala ere, orain sortu berri den
 taldea jada itxita dago; beraz, aurrerago sor daitez-
 keen taldeetan izena emateko interesa duenak
 bere datuak eman beharko ditu Elgoibarko Udala-
 ren Euskara Sailean, telefonoz 943 744 366 zenbakira
 deituta, edo emailaz euskara@elgoibar.eus
 helbidera mezu bat bidalita.

Covid egoerara moldatu behar izan dute Jaiotza Lehiaketa ere, eta aurten ez dute partaideen topaketarik egingo San Bartolome parrokiari

San Bartolome parrokiak hartu izan ohi du Jaiotza Lehiaketa Gabonen aurre-
 txoan, baina aurten aldaketak egin behar izan dituzte arduradunek Koronabirusaren
 eraginez, eta ezin izango dute ohiko topaketarik egin San Bartolome parrokiari.
 Horren ordez, Aita Agirre kulturgunean egingo dute jaiotzen erakusketa, lehiaketa-
 tan parte hartu duten jaiotza guztiekin. Gehienez sei laguneko taldeek hartu ahal
 izango dute parte. Izena emateko elgoibarkojaiotzak@gmail.com
 helbidera idatzi behar da, abenduaren 5a baino lehen. Mezuan partaideen izen-abizenak ze-
 haztu beharko dira, eta harremanetarako telefono zenbaki bat ere eman behar da.
 Lanak abenduaren 20an aurkeztu be-



harko dira Aita Agirre kulturgunean, au-
 rrez hitzordua hartuta. Epaimahaiak auke-
 ratutako lanik onenek garaikurra jasoko
 dute, baina partaide guztientzat egongo
 da oparixoren bat. Lan guztiak Aita Agi-

rreren bertan jarriko dituzte ikusgai aben-
 duaren 22tik 24ra eta 28tik 30era bitar-
 tean. Urtarrilaren 4an jaso beharko dira
 berriz lanak bueltan, 17:00etatik
 19:00retara.

Esteban Elorza aizkolari eta trontzalariaren erremintak eta sari-bilduma Mendaroko herriari eman dizkiote bere ilobek



Esteban Elorza *Kortaberri* zenak aizkora eta trontza erabili eta irabazitako erremintak eta sari-bilduma dohantzan eman dizkiote Mendarori. Aizkolari eta trontzalari mendaroarren ilobek egin dute dohaintza. Guztira trontza bat, lau aizkora, sega-poto bat, 24 kopa, bi plaka, hamahiru txapel, pitxer bat eta enmarkatutako argazki bat eman dizkiote Mendaroko herriari. Kortaberrik 16 urterekin egin zuen estreinakoz aizkora jendaurrean, Zarautzen, eta gerora aizkora eta trontza proba garrantzitsuenetan parte hartu zuen hainbat plazatan. Ibilbide arrakastatsuen ondorio, makina bat omenaldi jaso zituen, tartean jaioterrian egin ziotena 2011. urteko Kontzezio Azoka egunean. Bi aldiz Euskal Herriko txapela irabazitako Kortaberri eta Agustin Larrañaga *Agarretxiki* trontzalari ohiak omendu zituzten Goñati pilotalekuan egindako herri-kirol jaialdian. Elorza joan den apirilaren 18an zendu zen, 82 urte zituela. Mendaroko Udalak eskerrak eman dizkie aizkolariaren ilobei dohaintzan emandako guztiagatik, eta haren izena eta oroimena gorde eta zabaltzeko konpromisoa hartu du.

'Mendi Tour', gaur, Herriko Antzokian

Bilbao Mendi Film Festivaleko iazko edizioan saritu zituzten lau film emango dituzte gaur, 19:00etatik aurrera, Elgoibarko Herriko Antzokian: *Haria Herra*, *Nebula*, *Allein (Alone)* eta *Climbing Blind*. Sarrerak 4 euroan jarriko dituzte salgai Herriko Antzokiko lehiatilan, 18:30etik aurrera. Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatu du emanaldia.



Iker Karreraren 'Bidea Ipar' liburua aurkeztuko dute Mendaron abenduaren 11n

Iker Karrera (Amezketan, 1974) mendi lasterkariaren ibilbidea jasotzen duen *Bidea ipar* liburua aurkeztuko dute Mendaroko San Agustin Antzokian (19:00), abenduaren 11n. Karrerak eliteko korrikalari gisa bizi izan dituen bizipen gozo eta gazien kontakizuna da Unai Ugartemendia kazetari andoaindarrak idatzi duen liburu hau. Biak etorriko dira Mendarora liburua aurkeztera, eta *Iker. Mendia. Etxea* dokumentala ere emango dute ekitaldi berean. Sarrerak aurrez eskuratu behar dira Morroskillon, 2 euro ordainduta.

LANA.....

Eskaerak

Langile bat behar dugu adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, etxeko langile moduan. Titulua eduki behar du.

☎ 688 841 490

Langile euskalduna behar dugu hilean bi asterburuz lan egiteko: adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.

☎ 615 006 733

Zubacor lantegian CNC tornuko langile bat behar dugu. FANUC kontrolean esperientzia baloratuko da. Behin betiko lan-kontratua. Harremanetarako: zubacor@zubacor.com

☎ 943 740 844

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan.

☎ 642 975 934

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edota etxeko langile moduan.

☎ 610 668 183

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest. Asteburuetan ere bai.

☎ 612 531 623

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan aritzeko prest.

☎ 631 677 339

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan aritzeko prest.

☎ 632 238 016

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan, edo orduka. Gavez ere bai. Titulua eta erreferentziak ditut.

☎ 602 490 595

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Erreferentziak ditut.

☎ 631 439 959

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat. Etxeko langile moduan edo asteburuetan egingo nuke lan. Arropa lisatu, sukaldatu, botikak eman... denerako prest.

☎ 632 355 103

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz eta titulua daukat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan.

☎ 632 108 280

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut.

☎ 688 735 551

ETXEBIZITZAK.....

Bikote elgoibartarrak arazoizko prezioa duen pisua hartuko luke alokairuan. Etxe baten jabea bazara edo norbait ezagutuz gero, deitu mesedez.

☎ 619 966 696

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa.

☎ 641 359 024

GARAJEAK.....

Garaje marraduna alokatzen dut Ikastolako frontoiaren alboan.

☎ 618 384 319

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erreturatua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erreturatua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Basco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoalduko Finantza Administraziozainakaren Kontseilua</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean datorren urtean presidente izatea tokatzen zaion bizilagunak hainbat kuota ditu ordaindu gabe. Jakin nahi nuke ea saihestu dezakegun pertsona hori presidente izatea.</p> <p>Ordaindu gabeko kuotak dituen edo jabeen batzarretara joaten ez den jabe bat lehendakari izendatzea ez da legez kanpoko; izan ere, Legeak ezartzen duen muga edo eskubide-gabetze bakarria kuotak ordainduta ez egoteari dagokio. Kasu horietan, legeak boto-eskubidea kentzen dio soil-soilik. Beraz, egoera horretan dagoen jabe bat presidente izendatzen bada, hau da, saldo zordunen titular izanez gero (kuota arruntak edo apartekoak), edo biak batera, boto-eskubiderik gabe geratzen dira. Baina kargua bete eta komunitatea ordezkari lezakete. Hala ere, izendapena baliozkoa izan arren, ezerk ez du eragozten, ezta legez kontrakoa edo diskriminatzailea ere, une jakin batean batzarrak txanda salto egitea beharrezkotzat jotzen badu.</p> <p>Gomendioa. Lehendakariaren hautaketan txanda-sistema zorrotza aplikatzean, ohikoa da kargua hartzea jabe zordun batek edo arrazoi desberdinak medio komunitateak salatutako batek. Kasu horietan, bidezkoa da txanda edo zozketa sistema alde batera uztea eta zuzenean beste jabe bat aukeratzea lehendakari kargurako.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Inge** eta amama, igandean 8 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bana, batez ere, Alainen partez.



Zorionak, **Unax**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, familiako guztien partez.



Zorionak, **Danel!** Patxo handi-handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Lea**, atzo 8 urte bete zenuelako! Muxu erraldoi bat, sorgintxo!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 634 044

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR



**BLACK
FRIDAY**

AURRERATU ZAITEZI

MILAR

- Garbigailuak • Roonba •
- Tabletak • Telefono libreak •
- Aspiragailuak • Ile-lehorgailuak •
- Telebistak • Hozkailuak •
- Berogailuak • Labeak • Indukzioa •

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak / Produktuak agortu arte.

20 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan.

17:00-19:30 Jostailu erakusketa. 0-8 urte bitarteko umeentzat, Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta 8 urtetik aurrerakoentzat Aita Agirreko erakusketa gelan. Ludotekak, Gaztelekuak eta Atxutxiamaiak antolatuta.

19:00 Mendi Tour emanaldia. Morkaikok antolatuta, Herriko Antzokian.

21 ZAPATUA

11:30-14:00 Jostailu erakusketa. 0-8 urte bitarteko umeentzat, Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta 8 urtetik aurrerakoentzat Aita Agirreko erakusketa gelan. Ludotekak, Gaztelekuak eta Atxutxiamaiak antolatuta.

23 ASTELEHENA

19:00 Musika Eskolako talde instrumentalen kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean, ikuslerik gabe. Streaming bidez eskainiko dute.

AZAROAK 25

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

20 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'La estrella'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23 ASTELEHENA

18:00 Jabekuntza tailerrak: 'Tratu onak, prebentzio tresnak'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, elebitan.

25 EGUAZTENA

16:30 Ipuin kontalaria: 'Zu eta ni'. Dorleta Kortazar. Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. 16:30ean, HHkoentzat, eta 17:00etan, LHkoentzat. Gotzon Garate Udal Liburutegian. Gonbidapena beharrezkoa.

19:00 Biktima guztiak oroitzeko zapata gorritz irudikatuko dituzte emakumeak Mendaron, Herriko Enparantzan. Oinetakoak Leire jantzi dendara eramane behar dira aurrez.

26 EGUENA

19:00 Filma: 'La candidata perfecta'. Ongarriekin elkarlanean, Herriko Antzokian.

28 ZAPATUA

19:00 Bertsoa eta bakarrizketa: 'Erradikalak ginen'. Aita Agirre kulturgunean.

30 ASTELEHENA

16:30 Tertulia: 'Cuidar de ti, cuidar de mi: transformando el cuidado'. Jubilatuen Biltokian.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Ane' (Euskaraz)

21 zapatua: 19:00
22 domeka: 19:00
23 astelehena: 19:00

'Koko dragoi txikia oihanean'

22 domeka: 16:30

'La candidata perfecta'

(Ongarri zinekluba)

26 eguena: 19:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

20 BARIKUA	21 ZAPATUA	22 DOMEKA	23 ASTELEHENA	24 MARTITZENA	25 EGUAZTENA	26 EGUENA	27 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Fernandez *Garitaonandia	Egunez *Fernandez	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Orvesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



Txomin Arakistain Salegi

"Millapros"

2020ko azaroaren 17an hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Zure falta sumatzen dugu, baina gure bihotzetan zaude.



Pedro San Martin Iriondo

"Bertoso"

2020ko azaroaren 17an hil zen, 91 urte zituela.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.***



I. URTEURRENA

Libe Iriondo Mugerza

2019ko azaroaren 21ean hil zen, 83 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, azaroaren 22an,
11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Luis Suarez Echeverria

2020ko azaroaren 14an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Senar-aita-aittita:
Joan zara, gu penaz eta saminez beterik utzita,
baina zurekin batera bizi eta partekatu dugun guztiari esker,
beti izango zaitugu gure bihotzetan.
Ezin izango zaitugu ahaztu.***

Etxekoak



INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN

EZ

ZAITEZ

IKUSLE

HUTS

BAT

IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputaci3n Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro